

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

41. astea (2023/10/09-2023/10/15)


COVID-19aren intzidentziak beheranzko joera mantentzen du. Gripearen eta ABSren aktibitatea aurreko asteko balioen antzekoetan mantendu da, Lehen Mailako Arretan bronkiolitisaren diagnostikoek goranzko joera txiki bat izan arren.

- Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan.
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 255,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (323,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egin du eta bronkiolitisarena pixka bat igo da jai eguna egon arren.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 20 lagin jagoleen % 70,0 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 5,0), gripe-birus bat (positibotasuna % 5,0) eta 2 ABS (positibotasuna % 10,0) atzeman direlarik. 10 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 50,0).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 9,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,1/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemak, aste honetan, 251 SARS-CoV-2, 42 gripe-birus eta 5 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 255,4 kasukoa izan da (323,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 63,1/100.000 izan da Araban, 268,0/100.000 Bizkaian eta 262,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1834,0 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 313,4 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, baina hurrengo asteetako datuak beharko dira benetako joerak zeintzuk diren ikusi ahal izateko.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ere ESI gehienetan.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoen arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 41. astea	Tasa 40. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	233,3	295,8	0,79 (0,71-0,87)
Arabar Errioxako ESI	366,4	443,1	0,83 (0,55-1,24)
Barakaldo-Sestaoko ESI	214,5	283,9	0,76 (0,65-0,88)
Barrualde-Galdakaoko ESI	233,7	348,4	0,67 (0,61-0,74)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	304,9	358,5	0,85 (0,78-0,92)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	252,7	338,0	0,75 (0,66-0,85)
Uribeko ESI	230,7	287,6	0,80 (0,71-0,90)
Bidasoako ESI	184,3	262,2	0,70 (0,57-0,87)
Debararrenako ESI	302,7	341,8	0,89 (0,74-1,06)
Debagoienako ESI	317,4	373,7	0,85 (0,70-1,02)
Donostialdeako ESI	240,2	314,4	0,76 (0,70-0,83)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	309,3	331,3	0,93 (0,80-1,09)
Tolosaldeako ESI	322,0	331,4	0,97 (0,80-1,18)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 2,4 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (4,3/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) goranzko joera txikia mantendu eta 232,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (218,4/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoen arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 20 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 70,0 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat, gripe-birus bat (AH1pdm09) eta bi ABS atzeman dira. 10 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan SARS-CoV-2aren positibotasunak behera egin eta % 5,0an kokatu da (% 17,6 aurreko astean). Gripearean positibotasuna % 5,0an mantendu da eta ABSrena % 10,0ra igo da. Errinobirusaren positibotasuna altu mantentzen da eta % 50,0koa izan da (% 32,4 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoletan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	41. astea		40. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	1	5,0	1	2,9	2	3,7
SARS-CoV-2	1	5,0	6	17,6	7	13,0
ABS	2	10,0	1	2,9	3	5,6
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	0	0,0	1	2,9	1	1,9
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Errinobirus	10	50,0	11	32,4	21	38,9
Urtaroko CoV	0	0,0	0	0,0	0	0,0

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 9,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,/100.000 aurreko astean), 8,0/100.000 emakumeetan eta 11,9/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da, 25,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 21,9 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 15 urtetik beherakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi biologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2ren positibotasuna lagin hauetan beherantz darrai. Bestalde, gripe-birusaren eta ABSren positibotasuna azken asteetako balioen antzekoetan mantendu dira. Aipatzekoa da errinobiruserako azterturiko 36 laginetatik 12k emaitza positiboa izan dutela (positibotasuna % 33,3).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	41. astea		40. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop	Positib.(%)	Lagin kop	Positib.(%)	Lagin kop	Positib.(%)
SARS-CoV-2	185	14,6	240	20,8	425	18,1
Influenza	137	5,1	171	4,1	308	4,5
ABS	105	1,0	119	0,8	224	0,9

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Mikrobiologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 251 SARS-CoV-2, 42 gripe-birus eta 5 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 42 gripe-birusetatik, 35 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 6 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 80 detekzio erregistratu dira, 65 (% 96,3) A motakoak eta 3 (% 3,8) B motakoak. Orain arte azpitipatutako A motako 12 birusak A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, irailean, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboan % 32,2 sekuentziatu dira. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak EG.5.1 (% 32,4), XBB.1.5 (% 9,5), XBB.1.16 (% 9,2), JD.1.1 (% 8,3) eta DV.7.1 (% 5,4) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 41. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 28,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (35,4/100.000 aurreko astean); 28,6 gizonetan eta 27,7 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 56 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik (66 ospitaleratu aurreko astean), 29 gizon eta 27 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 91,1 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



Urteko 41. astean, COVID-19 9 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (18 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 9 izan da, aurreko astean baino 5 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko urriaren 18an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**